

Gai ordena:

- 1- Plazako autobus geltokia**
- 2- Landa eremua**
- 3- Ur depositoetako tuberia**
- 4- Herribideak eta**
- 5- 2017ko aurrekontuen lanketa**
- 4- Herribideen erabilpena**
- 5- 2017ko aurrekontuak**
- 5- Gai pendentiek eta bestelakoak**

1- Plazako autobus geltokia

Plazako autobus geltokiko kotxeentzako aparkalekuak kentzea erabaki da. Aldundiko errepideetako arduradunei eskaera egingo zaie (O.A.)

2- Landa eremua.

Zubingo zabortejiaren gaia atera da. I.A.k egoera azaldu du berriz ere: Garai bateko mehatzetako lur kontaminatuak jabetza pribatuan daude. Udalak ezin du erosi bertan ezer egiteko aukerarik ez badu. A.I.ri galdetu zaio ea Jaurlaritzak zeozer egin dezaken, Mehatzetako sailari dagokiola adierazi du. Jaurlaritzak dituen dirulaguntza jakin batzuk ezin dira erabili legeak diolako lur hori publikoa izan behar zuelako jadanik (2005 urtea baino lehen?).

I.A. arduradunak landa eremuarekin erlazionatutako ekintza anitzak azaldu ditu bileran: Jaurlaritza eta Aldundiaren laguntza ezberdinak erabiltzen ari gara hainbat ekimen aurrera eramateko (gehien bat Murumendi inguruan): Terrenoek erosteta, xagu zaharren zensoa, azaroan inauguratuko den PR bidea prestatu. Bestalde martxan da ekimen bat Urkiko garai bateko eskola berreskuratzeko elkarte/aterpe moduan erabili ahal izateko. Ez da proiektu handirik egingo, pixkanaka gauzak konpontzen hasiko gara (adib. sukaldea konpondu). Ekimen hau lehen aipatutako ibilbidearekin lotu daiteke.

3- Ur depositoetako tuberia.

Aurrekoan adostu bezala "Alternatiben plana" enkargatu zen eta burutu da. Plan horren laguntzaz proiektu zehatz bat aukeratu da. Proiektuaren lehenengo parte martxan da (O.A.)

4- Herri bideen erabilpena

A.G.k komentatu du egurrez kargatutako kamioi batzurekin arazoak egon direla, bideen mantenu onerako gomendagarria den baino pisu askoz handiagorekin ibili baitira. Herribideen ordenantzetan mugak hobetu zehaztu beharra dagoela ikusi da.

5- 2017ko aurrekontuak

Datorren urteko aurrekontuentzako proposamenak pentsatzen hasi behar gara gogorarazi zaie taldekideei.